



Gau Beltza Andoainen eta Urnietan

Arimen Gauda iristear da bi herrietara. Iluntzean hasita, ospakizunak iragarrita daude / 7-9

Goi mailako ospakizuna

Txanbolin Txistulari Bandaren 50. urteurreneko ekitaldi-sorta, Urnietan / 10-11

**Marce Garcia
Kaleratzeak Stop!
Desahucios elkarteko
ordezkariari
elkarrizketa** / 4-5

**G2ak kaltetutakoen
plataforma, Sorabilla
elkartea eta Aita
Larramendi ikastola
deitu ditu Udalak** / 2



59 zm.

61 zm.

BELTZA DA GAUA, ETA PISUTSUA KALABAZA!

Urriaren 31n, Goikoplazan eta Etxeberrieta plazan, kalabaza erraldoia topatuko duzu. Pisu handikoa da! Asmatuko al zenuke zenbat? Honako hauxe da plana:

- Kalabaza eskuetan hartzen ahalegindu eta pisu zehatza asmatzen saiatu.
- Euro baten truke, kalabazaren pisua gramotan zehaztu eskura jarriko dugun orrialdean.
- Errigorako kaxa eramango du etxera asmatzaileak edo pisu zehatzera gehien hurbiltzen denak!



AIURRI

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



N-1 eta A15 errepideen etorkizuna, aztergai

Errepide-sarea eraberritzeko CII delako egitasmoak hautsak harrotu zituen, aurreko ikasturtean. Agintaldi berrian sartuta, Udal gobernu taldeak gaiari heltzeko lehen urratsa eman du. Bilera batera deitu ditu eragileak eta alderdi politikoak

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Zertan da CIIaren auzia? Galdera hori egiten dute, Andoainen batek baino gehiagok. Protagonista nagusia CIIak kaltetutakoen plataforma izan zen. 2022ko udan eratu eta, urte hartako irailean hasita, ekimen betean aritu zen. Azken hilabeteotan, ordea, barne-prozesu modukoa bizi izan dute. Ez dira geldirik egon, nahiz eta jendaurreko agerpenak nabarmen murriztu. Lanean ari dira, berriki sare sozialetan aditzera eman dutenez.

Denbora-tarte honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Andoaingo Udal hauteskundeak izan dira, eta hauteskundeen ondorioz emandako aldaketak azpimarragarriak dira. Gipuzkoako Foru Aldundikoak EH Bilduk irabazi zituen, baina EAJ-PNV eta PSE-EE alderdien arteko akordioari esker, jeltzaleena da aginte-makila. Hori bai, bien artean ez dute gehiengo osorik lortzen. Eta, afera honetan, CIIaren alternatibaren aurka agertu da PP alderdia. Gipuzkoako PP gertutik ari da gaiaren jarraipena egiten, hauteskundeen aurretik eta ondoren.

Andoaingo Udalean, bestalde, gobernu-aldaketa egon da. CIIa defendatzen zuen EAJ-PNV oposizioan da, baita PSE-EE ere.



Aferak zeresana eman du, bereziki, Andoainen. AIURRI

URRIAREN 30ERAKO BILERA DEITU DU ANDOAINGO UDALAK, HERRIKO GIZARTE ERAGILEEKIN

EH Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdiak dira agintean, eta biak ala biak CIIaren aurka agertu dira. Gatazka sortu zenetik, errepide-sarea berritzeko afera hiltzeko foro baten osaketa defendatu zuten EH Bilduk. Bada, errealitate bilakatuko da hori

datorren astean. Gobernu taldeak oharra zabaldu zuen, joan zen asteartean: "Datorren urriaren 30ean, 18:30ean hasita, udaletxeko udalbatza aretoan, Andoaingo N-1 eta A15 errepideen Mahaia biltzeko deialdia egin du udal gobernuak. Bilera honetara deitu dira udalean ordezkaritza duten alderdi politiko guztietako ordezkariek, CII proiektuak kaltetutako herritar plataforma, Sorabillako auzo elkarteak, eta Aita Larramendi Ikastola". Lehen hitzorduan, beraz, politika eta gizarte eragileak deituko dituzte. Aurrerago, herritarrekin

beste bilera bat egiteko konpromisoa hartu dute.

Zertan da CII proiektuak kaltetutako herritar plataforma?

Hautsak harrotu zituen, herritar plataformak. Jendea mugiarazteko gaitasun handia erakutsi zuten, eta oraindik ere haiek zabalduzaten dozenaka oihal ikus daitezke udalerriko balkoi eta leihoetan. Baina ez dira auzi honetako protagonista bakarrak izan. Badira beste bi eragile gehiago.

Sorabillako auzo elkarteak bere eremuaren defentsa sutsua egin du, eta, CIIaren ordez, eragile batzuk Andoaingo Saihesbidea defendatuz izana mehatxutzat hartu izan du.

Aita Larramendi ikastola, CII proiektuak kaltetutako herritar plataforman egon arren, ekimena erakutsi du. Indarrean dagoen Andoaingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak defendatzen duenarekin bat egiten du ikastolako organu gorenak. Finean, egungo N1 errepidea Andoaingo herri barruko errepide bilakatzeko. Hartara, ikastolatik gertu igarotzen den trafikoa -zarata eta kutsadura- nabarmen murriztuko litzateke.

CII proiektuak kaltetutako herritar plataforma eraberritze fasean da. Aiurrik jakin duenez, hainbat lantaldek martxan jarri dituzte. Bere garaian, boluntario edo laguntzaile izateko prest agertu ziren herrikideekin elkartu dira eta alderdi politikoekin ez dute harremanik eten. Martxan direla diote. Bada berrikuntza bat, elkartearen bozeramailetzan ez da Iñaki Perez de Eulate ageri. Zenbait arrazoi argudiatuta, ekimenetik kanpo dagoela iragarri du berriki zabaldu duen gutunean.

% 2,6ko igoera adostu da Andoainen eta Urnietan

Plenoan eztabaidatu dira 2024ko tasak eta zergak ezartzeko ordenantza fiskalak

Erredakzioa ANDOAIN

Ordenantza fiskal berriei bidea eman diote Andoainen, aurkako botorik gabe. Udalak horrela laburbildu du, 2024ko ordenantzen izpiritua: "% 2.6ko igoera proposatu da, orokorrean. Igoera neurtua izan da: Udalak dituen erronkei aurre egiteko beharrezkoa zen tasak igotzea, baina, aldi berean, zama guztia herritarren bizkar utzi gabe".

Udal gobernuak egindako proposamenari, EAJ-PNVk eta Podemosek egindako emendakinak txertatu zaizkie, baita PSE-EEK proposatutako beste hiru ere. 12 aldeko botoekin, eta sozialisten 5 botoen abstentzioarekin onartu dira ordenantza fiskalak.

PSE-EE oso kritiko agertu da EH Bildurekin, Mankomunitateko presidentea soldatapean jartzeko hartu duten erabakiarrekin. EAJ-PNVk, bere aldetik, egoki ikusi du igoera. Jeltzaleak prest daude, "Andoainek aurrera egin dezan edozein hobekuntza babesteko".

Urnietan, aho batez

Ordenantza fiskalen aldaketa aho batez onartu zen EAJ-PNVren, EH Bilduren eta PSE-EE-ren aldeko bozkarekin. Urnietan ere % 2.6ko igoera ezarri da.



Andoaingo tren geltokia. AIURRI

Trenaren orde, bus-zerbitzu alternatiboa eskainiko du Renfek

Renfek, asteburuan, bus-zerbitzua eskainiko du Andoain, Urnieta eta Irun arteko joan-etorrietarako

Erredakzioa ANDOAIN

Konponketa-lanak direla eta, asteburuan tren-zerbitzua eten egingo du Renfek. Urriaren 28an eta 29an Andoaindik eta Urnietatik Irun aldera doazen joan-etorrietarako bus-zerbitzua eskainiko du, irtenbidea modura.

Eta, adi, zeren eta autobusetan ezin da bizikletarik sartu, ezta maskotak ere. Trenaren orde,

bus-zerbitzua eskainiko dute. Andoaingo eta Urnietako tren geltokietan bidaiariek busa hartzeko aukera izango dute. Donostiaren kasuan, autobusak Tabakalera azpiko bus-geltokitik aterako dira. 17 eta 21 arteko nasak egokitu dituzte horretarako. Bestalde, bi egunetarako ordutegi berezia ezarri dute. Webgunean eskuragarri dago.

POSTONTZIA

GURASOS BETERRI-BURUNTZA

Ekarpen ekonomikoa

Hedabideetan azaldu denez, Donostiako 5. Instrukzioko Epaitegia Asensio Foru Diputatua ikertzen ari da, balizko bi delituengatik. GuraSOS elkarteak herri akusazio gisa aurkezteko tramiteak egin ditu, eta epaitegiak fidantza bat eskatuko dio akusazio hori gauzatu ahal izateko. Herri ekimena beharrezkoa da GuraSOSek daraman bide judizialak aurrera jarraituko duela bermatzeko. Herritarrok antolatuta behar dugu. Nola? Andoainen, esaterako, Ernaitza liburudendan "Nire Gain" bonoa eskuratuz. Bono horietako bat bete beharko duzu, eskatzen diren datuekin eta bertan utzi. Datu horien artean zure emaila dago. Email horretara mezu bat helduko zaizu, diru-sarrerara zein kontu korrontean egin beharko duzun zehaztuz. Nahiz eta pertsona bakar baten datuak jaso bonoan, diru-ekarpena kuadrillan, familian, lantegian egin dezake. Arrain potoloek ezin dutelako ihes egin, ingurumena eta osasunaren defentsa zure esku!

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



- Iritzia
- Postontzia



AIURRI

Ortzaikako karobia piztu zuen berriro, Burdinak

Burdina taldeko kideek urteko batzarra egin zuten Ortzaikan, eta bertan dagoen karobia piztu zuten. Aspaldiko usadioa biziberritu zuten, modu horretan. Aspaldian utzita zegoen instalakuntza zen, garai

bateko ekonomian garrantzi handikoa bilakatu zena. Boluntarioen lanari esker, biziberritu dute. Hobekuntzak egiten ari dira, gainera. Estalpe lana egiten duen teiltatua ipini berri dute.

Palestinaren aldeko manifestazio berria, Bilbon

Larunbat honetan, manifestazioa deitu dute Bilbon, Palestinar erresistentziaren alde eta Israelen eraso zein hilketa bortzitzak salatuz. Andoaindik eta Urnietatik autobusak irtengo dira Bilborantz. 15:45ean, Andoaingo Makaldegitik eta, 16:00tan, Urnietako Kiroldegi paretik.

Euskalgintzak deitu duen manifestazioa, azaroaren 4an

Azaroaren 4an, euskalgintzak deitutako manifestazio nazionala egingo da Bilbon, 17:00etan, Euskaldunatik abiatuta. Bus-zerbitzua antolatzen ari dira Urnietatik nahiz Andoaindik. Urnietatik arratsaldeko 15:00etan, abiatuko da, Idiazabal kaleko 56tik. 15 euro balio ditu autobustxartelak eta euskaltegian eskura daitezke. Andoainen salgai jarriko dira Ernaitzan, Aiurri eta AEK euskaltegian. Irteera-ordua laster zehaztuko da.

THE 80's Party

URRIA OCTUBRE ANDOAIN 28

GOIKOPLAZAN DJ 18:00
MUSIC 19:30

SANTA KRUTZEN (ERMITA INGURUAN) DJ 19:30
MUSIC 21:00

ZUMEA PLAZAN DJ 21:00
MUSIC 23:00

MOZORROTUI

SALKIN

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Iraileko udal batzaraldian mozioa aurkeztu zutenen, eta onartuko zela espero zen. Ikusita, bereziki, zein den egungo udal ordezkari Andoainen, pentsatzen dut ezustekorik ez zenuela hartuko.

Sorpresarik ez, uztailean Donostiako Udalean antzeko mozioa aurkeztu genuelako. Hura izan zen aurrekaria, eta gure sorpresarako aho batez onartu zen. Hiriburukoa eta gero, Gipuzkoako udalerrri garrantzitsuetan antzeko mozioak aurkezteari ekin genion. Mozioari bidea ematea espero genuen, eta horrela gertatu zen.

Batzaraldi aretoko eztabaidan antzeman nuen arretaz entzuten zizutela zure argudioak. Zerbaitek harritu zintuen, pleno hartan?

Ez. Bakoitzak bere rola bete zuen. PSE-EEren esku dago Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saila eta, beraz, etxebizitzari loturiko politikak gauzatzen dituen aktore nagusia da. EH Bildu eta Elkarrekin Podemos, etxebizitza politikan, gure proposamenetatik gertuen daude. Ezustekorik ez zen izan, eta bakoitzaren argudioak aurrikusten genituen.

EAJ-PNVri buruz, aldiz, ez didazu ezer esan.

Bagenekien zer adieraziko ziguten. Jakin badakigu beren ADNan dagoela, ezereen gainetik, etxebizitzaren jabea babestea. Etxebizitzaren jabeari askatasun osoa aitortzen dio, nahi duen moduan jokatzeko. Uler gaitezen, etxe bat erosten dut eta nahi dudana egin dezaket etxebizitza horrekin. Hori, dagoeneko ez da horrela. Txip hori aldatu beharra dago. Etxebizitzaren funtzio soziala elementu berri gisa txertatu da, eta, horren arabera, expropiazioa ere kontuan hartzen da. Aipatu dizudan funtzio sozial hori bete ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzaren legedian kontuan hartzen al da diozun hori?

Bai, Etxebizitza Legean jasota dago hori. Erabilpenik ematen ez zaion etxebizitzari ezartzen zaion kanonak hori dio. Legea jasota dagoen bezala, denborak aurrera joan ahala, erabilpenik ez duen etxebizitza expropiatu daiteke.


Alderdiak aipatu ditugu, hasieran. Baina bada Gipuzkoan etxebizitza bat baino gehiago duen jende asko, eta alokairuan jartzeko zailtasunak jartzen dituen.

Jakin, badakigu. Andoain izan delako etxebizitza hutsen azter-

"Etxebizitza Planaren beharra dugu, Andoainen"

MARCE GARCIA KALERATZEAK STOP! DESAHUCIOS ELKARTEKO KIDEA

Etxebizitzaren auzian ezagutza handia dauka. Alor horretan, Euskadi nahiz Espainia mailan aritu da lanean. Pozik dago Andoaingo Etxebizitzaren Mahaia abian jarri delako



Marce Garcia Andoaingo Udaletxean, mozioa aurkeztu zuenean. AIURRI

keta egin den udalerrri bakantakoa. Hori da 2015-2019 garaiko Etxebizitza Mahaia eman zuen onena, ikerketa hori egin izana. 17.000 euroko kostua izan zuen, baina helburua bi urtetik gora hutsik zeuden etxebizitza hutsak lokalizatzea izan zen. Azken helburua etxebizitza horiei erabilpena ematea da. Guk ez dugu inoren aurka joan nahi. Etxebizitza hutsari jarritako kanona ez da jabearen aurka joatea. Kanona etxebizitza horren jabearen hautua da.

Hutsik dagoen etxebizitzari jarritako kanona nahikoa al da helburu hori lortzeko?

Ez. Baina IBIa bezala ezaguna den Ondasun Higiezinaren Zerga zergaren errekarua baino handiagoa da. IBIaren % 150eko errekaruaz ari garenean, gutxi-asko, 500 euroko kopuruaz ari gara hizketan. Donostian, esaterako. Baina kanonaren kasuan, errekarua metro-karratuko 10 eurokoa da. 800 eurora iritsi gaitzke, kanona aplikatuta. Hori lehenengo urtean, bigarren urtean ordaindu beharreko kanona handitu egiten da eta, hortik aurrera, nahitaezko alokairua delakoa ezarri daiteke.

Hori betetzen ari al dira?

Oraindik ez da martxan jarri. Ez dut neurri hori indarrean jarri duen udalerririk ezagutzen. Eusko Jaurlaritzari sei urtez eskatu genion dagokion araudia argitara ematea. 2021ean egin

zuen hori, eta 2021az geroztik ez da inon ezarri.

Beharren talka bat antzematen dut, afera honetan. Alde batetik, 2-3 etxebizitzaren jabe dena eta horietako bat alokairuan jartzeko batere beharrik ikusten ez duena. Beste alde batetik, etxebizitzaren premia duten herritarrak daude. Talka hori nola gainditu daiteke?

Oraintxe hizketagai genuena aplikatuz gero, gainditu daiteke. **Beti ere, betetzen hasiz gero.**

Hori da, betetzen edo aplikatzen hasten direnean. Ezin dugu etxebizitza horren jabea behartu, baina ulertzen dugu alokairuan jartzea edo saltzea bere onurarako zerbait dela. Bere aukera da. Esan bezala, egoera horretan nahiago dugu kanona ezartzea. Eta arrazoia honako hau da: Hutsik dagoen etxebizitzari ezarritako kanona etxebizitza politikara bideratuko da. IBIaren errekaruak, berriz, izaera errekaudatorio hutsa du.

Interes talka aipatu duzu. Adibide bat jarriko dizut. Har dezagun adibide modura biodiesel. Demagun inbertsio-funts batek zereal kopuru handia erosi eta biltegi batean gordetzen duela. Ez ditu salgai jarriko, harik eta produktu horren prezioa igotzen hasten den arte. Jokamolde horrek gasoilaren kostua igorarzen du, eta kaltetuak guzti-guztiak gara. Hori gaizki dagoela ikusiko genuke guztiok. Erabilpenik ematen ez zaion etxebizitzarekin gauza bera gertatzen ari da. Justifikaziorik gabe etxea hutsik duen jabea alokairu-prezioen merkatua garestitzen ari da. Eskaria eskaintza baino askoz gehiago delako. Orduan, etxebizitza huts horiek merkatura ateratzeko modua topatu behar dugu benetako beharra duen jendeari erantzuna eman asmoz. **Andoain Etxebizitza Mahaia abiatu da urrian. Zer egin daiteke udalerrri baten ikuspegitik?**

Mahaia berritri martxan jartzea proposatu zidatenean, argi nuen. Etxebizitza Plana behar-beharrezkoa dugu, Andoainen.

Kaleratzeak Stop plataforman argi ikusi dugulako beharrezkoa dela plana, Andoaingo tamaina-

"UDALERRI BATETIK LAN OSAGARRIA EGIN DAITEKE GAZTEEI ALOKAIRURAKO LAGUNTZA ESKAINIZ"

ko udalerrietan. Udal ordezkari guztiak egongo dira bertan. Horren bitartez, alderdien artean, lan ildo bati eusteko konpromisoari eutsiko zaio. Beharren diagnostikoa egin behar da, ondorioak atera eta hortik abiatuta helburu batzuk ezarri.

Honaino iritsita, Udalerri batetik zer egin daiteke? Lan osagarria egin daiteke, gazteei alokairurako laguntzak eskainiz, etxebizitzak eraberritzeko laguntzak emanez... Hutsik dauden etxebizitzak inkerketa egin zenean, Andoainen berrehundik gora antzeman ziren. Haiekin guztiekin jarri ginen harremanetan. Informazioa eskaini eta hainbat jabe elkarrizketatzeko aukera izan genuen, Andoainen. Bada etxebizitza eraberritzeko dirurik ez duen jendea. Kasu horietan, erantzun bat eman beharko zaie. Bada beste jende bat alokairuan jartzeko inongo asmorik ez duena, eta horri beste erantzun bat eman beharko zaio. Eta hirugarren batek etxebizitza txikituko dioten beldur egon daiteke eta, horrexegatik, ez du etxebizitza hutsa alokairuan jarri nahi. Horri Bizigune programaren berri eman beharko zaio, zeinaren bidez txikizioak estaltzen dituen aseguruia eskaintzen den.

Etxebizitza hutsen jabeen informazioa eman behar zaie, eta euren esku dago erabakia.

Etxebideren datuei erreparatura, alokairua eskatzen ari diren familia-unitateak 477 dira. Zuek diozuenek, horietatik 300dik gora Andoainen erroldatuta daude. Eskaera handia dirudi, eta eskaintza oso txikia dela dirudi.

Plataforman oso argi dugu noren alde egiten dugun lan. Alokairua eskatu eta zerrendan zain dauden horientzat ari gara lanean. Jabetzan erosi nahi duenari, laster edo beranduago, erantzun bat emango zaio. Ez da sustatu behar den politika, gure ustez. VPO edo babes ofizialeko etxebizitzak alokairura bideratu behar direla sinetsita gaude. Euskadin 60.000 eskaera daude. Erantzuna eman behar zaie, horiei guztiei. Beharren arabera, tamainako laguntza eskaini beharko zaio. Beraz, zer erakikiko da Andoainen? Nolakoa da gure herriko planifikazioa? Zein erantzun eman eskatzaileei, eta zenbat denbora beharko dugu?

Etxebizitza Plana behar dugu, hirigintza ikuspegi hutsetik harago, pertsonak erdigunean ja-

rrita. Beste adibide bat jarriko dizut. Gazteen eta adinekoen beharrak asetzeko apartamentuak eskaintzea aukera bat da. Udalerri batean azterlan hori egin behar da, Etxebizitza Plan baten barnean. Zenbat adineko bizi da Andoainen, igogailurik gabe eta irisgarritasun arazoekin? Hori da aztertu beharrekoa. **Etxebizitzak eraberritzeko laguntza aipatu duzu lehen. Udalerri batek hainbesterako gaitasun ekonomikoa izan dezake?**

Gaitasuna badu.

Udaletxeak?

Bai, bai.

Kostu handiko lanez ari gara.

Eusko Jaurlaritzak ere antzeko laguntzak eskaintzen ditu, Biziguneren bidez. Udalak, esaterako, 10.000 euroko laguntza eman diezaioke etxea eraberritu behar duen jabeari eta honek, era berean, alokairutik jasotzen duen zati bat 10.000 euro horiek itzultzeko erabiliko ditu. Formula hori egingarria da.

Alokairu sozialeko etxebizitzaren eskatzaileak noiz arte egon daitezke baldintza berezietan?

Bi segmentu nagusi berezi behar dira: adinekoak eta 35 urte azpiko gazteak. Adinekoen kasuan ez dago epe-mugarik. Gazteen artean, berriz, bost urteko epealdia da. Baldintzak betetzen diren bitartean egoera berean jarraitu dezakete, ez dago arazorik. Diru-sarrerak gainditzen direnean, kasu horretan, baldintzak aldatu egiten dira.

Alokairuaren alde horregatik egiten dugu. Erosketen kasuan, ez dagoelako kontrolrik. Bada jendea babes ofizialeko etxebizitza eskuratu duena eta era berean hirugarren bati alokairuan eskaintzen diona. Irabaziak lortzen ari da pertsona hori, babes ofizialeko etxebizitza baten kontura. Beste kasu askotan etxebizitza eskuratzen dute, eta ez dira bizitzen jarri. 2015ean, jarduera horientzat, mila pertsona zigortu zituen Eusko Jaurlaritzak. Badakizu zein zen zigorra? Isun ekonomikoa. Eusko Jaurlaritzak, kasu horretan, etxegabetu egin beharko luke etxebizitza horren jabea. Jokabide horrekin jabeak etxebizitza horren beharrik ez duela erakusten duelako. Etxegabetu behar zaio, eta etxebizitza horri beharra duen beste norbaiti bideratu behar zaio. Zoritxarrez, babes ofizialeko etxebizitzatan gertatzen ari da hori.

Alokairuzko etxebizitzarekin ez da horrelakorik gertatzen, jabearen diru-sarreraren arabera jartzen direlako baldintzak. Muga gaindituz gero, baldintzak aldatu egiten dira.

Hori da alokairuaren alde egiteko arrazoia?

Bai.

Eta besterik?

Diru-sarreraren arabera alokairua da. Ez da betikotzen den egoera bat. Pertsona horren egoera ekonomikoa aldatuz gero, baldintzak aldatzen dira. Guztiok ezagutzen ditugu babes ofizialeko etxebizitza erosi, eta garajeen sekulako ibilgailua duen jendea. Ez dago kontrolrik.

Kontrol gehiago eskatzen ari zara.

Ez baitago inolako kontrolrik. Denbora honetan guztian, Eusko Jaurlaritzak hiru jokabide desegoki zigortu ditu. Hiru, bakarrik. Gure erakundearen jokabidea isun ekonomikoa ezartzea bada, horrela betearazten da etxebizitzak izan behar duen funtzio soziala? Ez. Jabetzara bideratutako babes ofizialeko etxebizitza benetako beharra duenari bideratu zaio? Ez. Diru publikoa, nire dirua, beharra ez duen jendeari bideratu behar zaio? Ez.

Erantzuna argia da.

Era berean, gizarte mailan ikusi nahi ez dugun arazo baten aurrean gaudela esango nuke.

Halaxe da. Ez baitago hau azalazteko interesik. Jendea, oro har, auzi hauetatik oso urrun dago. Euskal gizarteari galdetzen zaionean, etxebizitza ez dute premiazko arazotzat ikusten. 2021ean Euskadi mailako etxebizitzaren ikerketa aurkeztu genion Eusko Jaurlaritzari, eta hedabide nagusiei. Ez du inolako oihartzunik izan. Herritarrek ez dute arazo gisa bizi. Bestalde, gertuko erakundeetan, prestakuntza falta nabarmena dago. Alderdi politikoen prestakuntzarik ez duten ordezkariak ditugu. Eta, bestalde, kalean ez dago ordezkari politikoez erantzun irmo bat. Gu izaten ari gara oposizioa, alor honetan. Hein batean, hainbat alorretan eta bereziki alderdi jakin batzuekin sartzen ez garenean, aintzat hartzen gaituzte. Proposamen serioak egiten ari garelako.

Eztabaidatzeko prest gaude, behar-beharrezkoa delako.

Maileguak eta gehiegizko klausulak adibide modura jarriko

dizkizut. Andoainen ehunka dira gehiegikeriak pairatzen ari direnak. Aldizkari bat atera genuen Andoainen, banketxeek ezarritako gehiegizko klausulak zehaztuz. Hitzaldi-sorta antolatu genuen, eta hamar lagun hurbildu ziren, arazo hori pairatzen ari direnak ehunka direnean.

Politikariekin eta hedabide handiekin antzeko gertatzen da. Ez zaie interesatzen eztabaida hori hauspotzea. Auziari buruz interesa duten hedabideak txikiak dira.

Andoaino plenoan, EAJ-PNVri erantzunez, etxebizitzaren erosketari bideratutako abantaila fiskalak eskaintzen dituen erkidego bakarra Euskadikoa dela salatu zenuen.

Etxebizitza erosi eta abantaila fiskalak eskaintzen dizkiogu erosleari, errenta aitoparen bidez. Dedukzio fiskal hori, Eusko Jaurlaritzaren datuak aipatuz, 400 milioi eurokoa da guztira. Pentsa, erakundeetara iristen ez diren 400 milioi euroz ari gara. Gainerako erkidegoetan egiten dute, hemen ez.

Erosketa saritzen dela, alegia.

Horrela da. Nori egiten dio mesede hori? Erosleei, eraikitzaileei eta banketxei. Garrantzi handiko kontu sozialaz ari gara. Alokairuarena benetako arazo bilakatu da. 40.000 biztanleko udalerritan, gehienez ere, alokairurako eskaintza hamar etxebizitzatara besterik ez da. Eskaintza arazo larri baten aurrean gaude. Erostea da, orduan, alternatiba. Baina bati baino gehiagori etxebizitza erostea ezinezkoa zaio. Banketxeen neurriak bete ezinda dauden pertsona asko dago, egun. Eta, hala ere, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza lansaila autokonplazentzian murgilduta bizi da. Kexu agertuz gero, Euskadiren datuak Espainiako onenak direla adieraziko dizute. Nire analisia honakoa da: hirugarren munduko lehenak gara, etxebizitzaren alorrean.

Europarekin alderatzen hasita, aldaketa handia egin behar da. Etxebizitza Lansailaren aurrekontua beretsua da, azken urteotan. Aurrekontua, urteko, hirukoiztu egin behar da. Hori egin ezean, ez da benetako aldaketarik emango Euskadin. Udalerritan hutsik dauden etxebizitzak merkatuan jarri behar dira, eta horri bideratutako partida aldatzen ez denez, ez dira benetako beharrak asebetetzen.

Etxebizitza Mahaiaren funtzioak

Udalerrian abian jartzea garrantzi handikoa dela irizten dio Marce Garciak. Zereginak zerrendatu ditu, berehala: "Ziur aski gehiago egongo dira. Mahaian aztertuko dugu, eta espero dut Etxebizitza Planean jasotzea. Garrantzitsuenak, honako hauek:

- Hirigintza-plangintza, etxebizitzak sustatzeko gaitasunarekin, Etxegintzak Donostian edo Bilboko Udala Etxebizitzak egiten duten bezala. Erakunde horiek alokairu sozialeko 2000 eta 4000 etxebizitza baino gehiago kudeatzen dituzte, hurrenez hurren.
- Alokairurako laguntzak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen bidez, edo aurrekontuaren kontura emandako beste edozein laguntzaren bidez. Lehendik dauden laguntzen osagarri gisa, hala nola gazteak edo independenteak alokatzeko laguntzak, hala nola birgaikuntzarako, irisgarritasunerako edo energia-eraginkortasunerako laguntzak.
- Hobariak edo errekariguak udal-kudeaketako zergetan. Etxebizitza-politikako tresnak dira, adibidez, hutsik dagoen etxebizitza mobilizatzeak.
- Sailarekiko lankidetzahitzarmenak, adibidez, udal-etxebizitzak kudeatzeko edo etxebizitzaren esleipenak udalerritan erroldatutako soilik baldintzatzeko...
- Azkenik, eta ez garrantzi gutxiagokoa, lurzoruen kudeaketa etxebizitza eraikitzeak, Eusko Jaurlaritzari lagatzea babes ofizialeko etxebizitzatara edo lurzorua erosteko...".

MANIFESTAZIOA

AZAROAK 4

17:00

EUSKALDUNA

BILBO

OLDARRALDIAREN
EUSKAREKIN
BAT
EUSKARAZ
BAT
AURREAN



EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA



Prestaketa lanetan murgilduta dabilta Urnietan. AIURRI

“Gau Beltza indartu nahi dugu, baita euskararen erabilera ere”

ALMU SALAS ETA ARANTZAZU MINER URNIETAKO GAU BELTZAREN ANTOLATZAILEAK Gau beltza ospatuko da urriaren 31n Urnietan. Arratsaldetik hasita, ekintzez jositako egitaraua antolatu du Magale-Salestarrak ikastetxeak, herritar guztiei begira



Almu Salas eta Arantzazu Miner, aurtengo afitxarekin. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Geroz eta herri gehiagotan antolatzen da urriaren azken iluntzean Gau Beltza. Urnietan, orain bi urte ekin zitzaion ospakizunari eta, besteak beste, Almudena Salas, Arantzazu Miner eta Nerea Lizartza daude antolaketa-lanen atzean. Ohiturari jarraiki, arratsalde berezia izango da herrian, datorren hilaren 31n. **Zein nolako arratsaldearekin egingo du topo zuenera hurbiltzen denak?** **Arantzazu Miner:** Lehen aldiz ospatu genuenean, San Juan plazan

egin genuen guztia. Orain, ordea, berrikuntza batekin gatoz. Izan ere, Etxeberri plaza izango dugu abiapuntu. Ondoren, San Juan plazara bidean, askotariko ekintzak izango dira, besteak beste, danbor-joleak, dantzak... Jarraian, ipuin-kontaketa, txokolatada, gaztain-jatea, beldurraren pasabidea eta sospresatxoren bat edo beste izango ditugu.

Almudena Salas: Duela bi urte egin genuen, lehenengo aldiz, Gau Beltza, ikusi genuelako Halloween ospatzeko ohitura geroz eta nabarmenagoa zela, bai Urnietan, bai inguruko herrietan. Hala, gurean, egun horren bueltako berezko ospakizuna zabaldu nahi genuen. Gau Beltza indartu nahi dugu, baita euskararen erabilera ere. Iaz ezin izan genuen. Hortaz, aurtengoa, berriro ohitura hartzea erabaki dugu.

Zein adin-tarteri zuzenduta dago?

A.S.: Gure ikasleekin landu duguk, baina herritar orori dago zuzenduta gonbidapena.

Esku asko behar al dira horrelako egitaraua pentsatu zein gauzatu ahal izateko?

A.S.: Askotariko edukiak lantzen ari gara, euskaratik, plastikatik, musikatik... Jende asko behar da horretarako, bai ikasle, bai irakasle, bai guraso. Finean, esku guztiak ongi-etorriak dira. Ekitaldi xumea izan arren, tarte luzea hartu digu prestaketak. DBH1-eko zein DBH 2-ko ikasleekin ari gara batez ere, nahiz eta guztiak egon gonbidatuak.

EGITARAUA

ASTEARTEA 31

18:30 Etxeberri plazatik San Juan plazara Beldurrezko ipuin kontaketa saioa, gaztain-jatea, txokolate beroa, "Ziria ala saria". Antolatzailea: Salestarrak-Magale ikastetxea. Laguntzailea: Urnietako Udala.

A.M.: Irailaren lehenean hasi ginen prestaketa-lanetan. Orain, azken ukituak ari gara ematen, buru-belarri, ikasleekin entseguak egiten, plastikako lanak bukatzen...

Euskal Herrian geroz eta herri gehiagotan egiten da Gau Beltza: Usurbil, Oiartzun, Andoain, Pasaia...

A.M.: Pozgarria da. Orain bi urte ez genuen inor ezagutzen. Herri askotan egiten da orain. Polita da, egia esan.

Ez omen da Halloween delakoarekin nahastu behar.

A.M.: Arimen Gauda da Gau Beltza. Iluntasunarekin eta kolore beltzarekin dago harreman duta urriaren 31. Etxean entzunda, baratzeetan ibiltzen zirenean, kalabazak hartzen eta hustutzen, kandela sartzen, eta, batik bat, auzoetako eta inguruetako neskei beldurtzen. Hortik omen dator. **Erreferentziarik erabili al duzue Gau Beltza nola girotu jakiteko?**

A.M.: Gaiarekin lotutako web orrialdea dago. Bertan, zintzilikatuta dauden edukiak jorratu ditugu. Bestalde, Juanatxo Olina eta Urnietako beste hainbatentzako testigantzak entzun ditugu. **Hitzordua prestatzeko, moztarailerara egin zenuen joan den asteazkenean.**

A.S.: Batez ere, beren zapia atontzen, aurpegia margotzen erakutsi genion jendeari, ospakizunak Halloween festaren inertzia hartu ez dezan.

Gomendiorik bai azken momentuan inspirazio bila dagoenari?

A.S.: Gu ere horrela ibiliko gara, seguru! (Barrez) Armairuan topatutako arropa zaharrak janztea ta jaiaz gozatea da gakoa.

A.M.: Elementu xumeekin egin daiteke, galtza bakeroekin, koardodun alkandorarekin, baserritar gonarekin...

A.S.: Arratsalde polita izango da, etor dadila jendea!

Andoaingo Gau Beltza, urriaren 31n: Goikoplazan hasi eta Etxeberrietan ama



Txokolatea eskainiz hasiko da ospakizuna. AIURRI

Txokolatea Goikoplazara hurbiltzen denari txokolate beroa eskainiko zaio. Glutena hartzen ez dutenentzat ere egokia da. Batzokia elkartarekin lankidetzan prestatuko da.



Txalaparta doinuekin abiatuko da antzezlan. AIURRI

Txalaparta Maizorri txalaparta taldeko kideek saioari hasiera ematen diotenean, eguneko lehen ikuskizuna abiatuko da Goikoplazan bertan.



Antzezlan aurtan Goikoplazan da. AIURRI

Antzezlan Zer da Gau Beltza? Nondik dator arimen gaua? Antzeppen laburraren bitartez Gau Beltzan murgilduko gaituzte Goikoplazan agertuko diren aktoreak.



Urki dantza taldekoek saioa eskainiko dute. BARREN

Dantzariak Aurtan Urki dantza taldekoak ere batuko dira ospakizunera. Haurrak eta helduak, guztiak batera, parte-hartzailea den saiotxo prestatzen ari dira.



Iazko konpainia bera hurbilduko da Andoaingo Gau Beltzara. AIURRI

Iristear da Andoaingo Gau Beltzaren edizio berria

Antolatzaileak azken xehetasunak lotzen ari dira egunotan. Iaz abiatutako ospakizun handia errepikatzeko gogoz da Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Andoaingo hainbat herri eragilerekin lankidetzan, arratsalde-gau parte magikoa izango da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Udazken kutsuko eguraldia iritsi da gugana. Eta, giroan, Arimen Gaua bertan dela nabaritzen hasiak gara. Kalez kale aurki daitezkeen afitxak, merkatalgune batzutan ikus daitezkeen kalabazak, Aiurri.eus bidez zabalduetako bideoak... Asteburu honetan, gainera, ordua aldatuko da eta egunari tarte kenduko dio gauak. Iluna eta gaua misterioari eta beldurrari lotu-

tako elementuak dira, gure iruditerian. Osagai horiek hor izanik, iazko ospakizunari jarraipena eman nahi dio Manuel Larramendi Kultur Bazkunak. Bai ala bai, Arimen Gaua euskal kutsukoa izan zedin, Andoaingo Gau Beltza abiatu zen 2023an. Arrakasta handikoa izan zen, mugarrira kultur bizitzan. Ezusteko atsegina izan baitzen hainbeste jende Gau Beltzaren inguruan gozaten ikustea. Osagaiak

erakargarriak ziren arren, eguna iritsi arte zaila zen gertatu zena aurrikustea: Goikoplaza jendez beteta, txokolatea agortzea, Kale Nagusian beldurraren etxera sartzeko pilaketak, kalejiran jende andana artisten alde banatan... Gau Beltza Andoainen txertatzeko emandako lehen urratsa sendoa izan zen. Bigarren edizioa bide beretik joan daitekeenez, erantzun egokia emateko lanean ari da Bazkuna.

Bituko den ospakizuna, Kale Nagusian barrena igarota



Kalejira, iaz, Kale Nagusian. AIURRI

Kalejira Andoingo Udaleko Kultura Lansailaren eskutik, Goikoplazatik abiatuko da kalejira. Iazko konpainia bera da. Ziur, aurtengo ere, ikuslegoa harrituko duela.



Beldurraren pasabidea, iaz. AIURRI

Beldurraren pasabidea Irunberriko kideei esker, benetako beldurra sentitzeko aukera izan zuten, haur eta gaztetxoek. Aurtengo edizioarako prest dira.



Taloa 5 eurotan salduko da, iaz bezala. AIURRI

Taloa Kotoi elkartearekin lankidetzan, taloa eskainiko da kalejiraren amaiera aldera. Txistorra, hirugiharra eta txokolata, aukeran. Txartela alde aurretik erosi behar da.



Lebiton, iazko Santakruzetan. AIURRI

Zezen-suzkoa Iazko edizioan irten gabe geratu zen Lebi, euria zela-eta. Lebiton konpartsako kideak gogotsu daude. Etxeberrieta plazan ariko dira.

Bakarrrik ez, lagunekin bai

Larramendi Bazkunak eta Aiurrik hartu dute ekimena, Gau Beltzaren antolaketa. Hori esatearekin batera, ezinbestekoak izan dira lankidetzak. Eta, iaz bezala, bigarren edizio honetan herriko gizarte eta kultur eragileen lankidetzak ezinbestekoa izango da. Jaia gauzatzeko lanean jarriko diren eragileak hauek dira: Batzokia elkarteak txokolate beroa prestatuko du. Mai-zorri txalaparta taldea, Oihana Sanchez aktorea eta Urki dantza taldea izango dira Goikoplazako ikuskizuneko protagonistak. Herrian barrena kalejira ariko da konpainia profesionala, Udaleko Kultura Lansailari esker. Irunberri elkarteak kideek beldurraren pasabidea antolatuko dute. Kotoi elkarteak kideen laguntzarekin, dozenaka talo eskainiko dira Etxeberrieta plazan. Eta, azkenik, Lebiton konpartsak Lebi zezen-suzkoarekin emango dio amaiera jaiari. Ezin aipatu gabe utzi Salkin eta Andoingo Udala, jaiaren laguntzaile baitira.

Bidelagunak behar dira

Eragile horiez guztiez gain, laguntzaileak behar dira. Lan zehatzak izango dira, hala nola, bide-segurtasunean laguntzeko eta elikagaiak zerbitzatzeko. Laguntza emateko prest dagoen boluntarioak mezua idatz dezake, 619 163 537 whatsapp zenbakira.



Mozorrotzeko aukera ugari dago. Argazkiko neska-kuadrilla, esaterako, eredu ona da. AIURRI

Euskal kultur adierazpideak Andoingo gizarte bizitzan

Eragile horiekin guztiekin, gizarte bizitzan markatzea utzi nahi den ekitaldia izango da, urriaren 31koa. Hilaren hasieran egin zen aurtengo edizioaren aurkezpen-ekitaldia, Plaza Mo-

rean. Ane Jalon Larramendi Bazkuneko lehendakariaren adierazpenenetik honako hau gogoratzea proposa da: "Gau Beltza apartekoa izango da. Markatzea jarri genuen iaz, eta aurtengo bide beretik jarraituko genuke. Euskal Kultur adieraz-

pideek garrantzia hartu behar dute gizarte bizitzan, eta norabide horretan urrats berria eman nahi dugu". Euririk ez egitea, horixe da egunari eska dakioken gauza bakarra. Hori lortuz gero, iluntze-gau majikoa biziko dugu datorren asteartean.

EGITARAUUA

ASTEARTEA 31

18:15 Txokolate beroa eta bizkotxoak, Goikoplazan. Doakoa da, eta bertaratu besterik ez da egin behar horretarako jarritako mahaira. Guztiek jateko modukoa izango da, baita glutena hartzen ez dutenentzat ere.

18:50 Txalaparta, antzezlan laburra eta Urki dantza taldearen saioa, Goikoplazan.

19:15 "Akerrak okerrak" kalejira Goikoplazatik abiatuko da, Kale Nagusian barrena, Etxeberrieta plazazantza.

19:15 Beldurraren pasabidea Irunberri elkartearen. Doakoa da, eta bertan jarritako ilara jarraitu beharko da elkartearen barrualdera sartzeko.

20:00 Talo-jatea, edariak eta musika, Etxeberrieta plazan. Txartelak 5 eurotan salgai Keinun, Urratsen eta Aiurri.

21:00 Zezen-suzkoa, Etxeberrieta plazan. Lebiton konpartsako saioarekin amaiera emango zaio aurtengo ospakizunari.



Txanbolin Txistulari Bandako kideak, emanaldiaren amaieran. Merezitako txaloak jaso zituzten. AIURRI

Txanbolinen urteurrena, borobila

Txanbolin Txistulari Bandak 50. urteurreneko emanaldi gogoangarria egin zuen. Herriko eta inguruko lagunak igo zituzten taula-gainera, hogeitabost piezatako ikuskizuna borobiltzeko

Xabier Lasa URNIETA

Txanbolin Txistulari Bandak, makina bat musikari eta dantzari ondoan zituztela, ikuskizun ederra osatu zuten. Urnietaren historiako hainbat pasarte modu kronologikoan jorratu zituzten, agertoki bilakatu zuten Urnietako Kiroldagian. 25 abesti eskaini zituzten, denera. Gozatu ederra hartu zuten aretoa jendez lepo bete zuten ikusleek, eta oroimenean denbora askoan gordetzen den ikuskizun horietako baten lekuko izan ziren. Emanaldi kolektiboa izan zen, lagun askoren artean gauzatu zena. Ikuskizunaren zuzendari lanetan Joxe Mari Oiartzabal aritu zen. Musika alorrean, ar-

dura nagusia Antton Jauregik hartu zuen, eta moldaketak Joxe Mari Oiartzabalek eta Jose Inazio Ansorenak egin zituzten. Taula-gainera lagun gehiago igo zen: Xabi San Sebastian, Ana Pozas, Aitor Unanue eta Fermin Zinkunegi abeslariak eta Gari-koitz Mendizabal txistularia. Koreografiak Edu Muruamendiarenak izan ziren. Aurkezle-lanetan Nekane Ubillos eta Beñat Lizaso aritu ziren. Hainbat taldek parte hartu zuten, Txanbolinen gaualdi berezian: Andoain, Hernani eta Lasarte-Oriako txistulariak, haizezko taldea; folk taldea; Urnietako abeslariak; Urdanbor danborrada eta Egape Dantza Taldea.



Urdanborreko kideak Urnietako ereserkia jotzeko unean igo ziren taula-gainera. AIURRI



Egape Dantza Taldeko kideak, Urdanborreko kideekin batera. AIURRI



Muruamendiarazen koreografiak egin zituzten Egape Dantza Taldeko kideek. Argazkian, Idiazabal kaleari eskainitako pieza. AIURRI



Egape Dantza Taldeko gaztetxoak, taula-ganean. AIURRI



Urnieta 400 pieza abestu zuen Fermin Zinkunegik. AIURRI



Kantutegian, Urnietako mendiei eta aurre-historiako lekuei aipamena egin zitzaien. Tartean, "Mulisko" gainari. AIURRI



Txabolino kideak inguruko herrietako musikariekin batera aritu ziren, Joxe Mari Oartzabalx zuzendari zutela. AIURRI



Justo Egañak aitortza jaso zuen, ekitaldiaren amaieran. AIURRI



Txanbolin Txistulari Bandaren 50. urteurrena

Bideo-sorta, argazki-bilduma, kronika

WWW.AIURRI.EUS



Ainara Leibar eta Itziar Loinaz. **AJURRI**

DUATLOIA Adunan amaituko da EH Duatloi Zirkuitua

Aurreko asteburuan Amasan aritu ziren, eta denboraldia Adunan amaituko da. Datorren azaroaren 4an izango da. Amasan Euskal Herriko eta Kataluniako partaideak izan ziren. Eskualdekoen artean TxirrinAndoain taldeko bi kide aritu ziren, erreleboka. Korrika eta mendi bizikletan aritu behar dute, zirkuito honetan. Igantzi, Kanpezu edota Durangon aritu dira, lehenago.



Aurtengo kartela. **NAVARRA ARENA**

AIZKOLARIAK Euskal Herriko lehen mailako finala, Navarra Arenan

Euskal Herriko aizkolaria txapelketako Lehen Mailako finala datorren azaroaren 1ean izango da, eguerdiko 12:00tan hasita. Lehian arituko dira Jokin Urretabizkaia 'Basozabal' (Gipuzkoa), Josean Etxeberria (Nafarroa), Iker Vicente (Nafarroa), Oier Kañamares (Nafarroa), Hodei Ezpeleta 'Bihurri' (Gipuzkoa) eta Julen Gabirondo (Urnieta, Gipuzkoa).



Irati Aranguren. **MAIDER ORBEGOZO**

ZIKLO-KROSA Andoaingo Txirrindulari Eskolako juniorrak, maila onean

Aurreko igandean CX denboraldiari eman zioten, Tolosan. Junior mailan Irati Aranguren izan zen garaile, eta Izaro Etxarri seigarren. Aranguren sasoiko iritsi zen Tolosara, Galizian eta Gaztela Leon estatuko eta nazioarteko ziklo-kros probatan parte hartu ondoren. Mutiletan, berriz, Xabat Zuriarrain 11. postuan sailkatu zen eta Markel Tamayo 39.



Artxiboko irudia. **AJURRI**

SASKIBALOA Plastigaur Ganbara, garaitezina liga hasieran

Infantil Emakumezkoak Partaidetza ligan, 1.4 azpimultzoan jokatzen ari da Plastigaur nesken taldea. Hiru jardunaldiak irabazi dituen talde bakarra da. Beraz, lidergotzan da. Bestalde, 2.1 azpimultzoan lehiatzen ari da Imaz Plastigaur taldea. Ostadar Beltza taldearekin batera, garaipenik eskuratu ez duten talde bakarrak dira. Asteburuan, elkarren aurka ariko dira, Allurralden.

FUTBOLA Euskalduna eta Urnieta garaile, Gorengo mailan

Seigarren jardunaldian Urnietak Touring B taldea garaitu zuen (1-2). Denboraldiko bigarren garaipena izan da. Asteburuan etxean ariko dira, Mariñoren aurka. Bigarren multzoan ere albiste onak, Euskaldunak Ikasberri garaitu zuelako (4-3). Euskalduna laugarren postuan da sailkapenean, 6tik 3 garaipen eskuratuta.

FUTBOLA Urnietako nesken lehen garaipena

Bosgarren jardunaldian iritsi zen Urnietako lehen taldearen garaipena. Ilintxa mendean hartu zuten, Urnietan bertan (2-0). Lagun Onak, Ilintxa eta Orioko dira gaurdaino garaipenik eskuratu ez duten taldeak. Eta, hain zuzen, Urnietak datorren asteburuan Orioren zelaian jokatuko du. Bigarrena eskuratzeko aukera izan dadila.



Iker Irastorza. **AJURRI**

Leitzaranean, eta inguruetan

TXIRRINDULARITZA Urnietatik abiatu zen Zanpatuz taldearen BTT irteera. Andoaindik Berastegi aldera jo zuten, Leizara irist eta Leizaran haranean barrena itzulera egin zuten. Urnietara iritsi aurretik, geldialdixoa egin zuten Andoaingo Zumea plazan. Eguraldia lagun, irteera ederra osatu zuten Zanpatuz taldeko kideek. Denera, 50 kilometroko irteera izan zen.



ZANPATUZ

ESKUBALOA Leizaranen lehen garaipena, Euskal Ligan

Leizaran Lanbroa taldeak Egia garaitu zuen, Euskal Ligako hirugarren partidari (28-21). Gipuzkoako 1. Lurreldeko txapelketan, Urnieta Quel Abogados taldea bigarren postuan da Pulporen aurka garaipena eskuratu eta gero (18-15). Mutiletan, Leizaranek berdinketa lortu zuen Arrasaten (21-21), eta Urnietak garaipena Eibarren (20-25).

andoainDARRA
euskaraz

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

ANDOAINGO GAU BELTZA

URRIAK 31,
ASTEARTEA

18:15 Maizorri txalaparta taldea, antzezlan laburra, Urkiren emanaldia. Txokolate-jatea Goikoplazan, Batzokiarekin lankidetzan.

19:15-20:00 "Akerrak okerrak" kalejira. Ibilbidea: Goikoplaza, Kale Nagusia, Zumea kalea, Etxeberrieta.

19:15-20:30 Beldurraren pasabidea Irunberri elkartean.

20:00 Talo-jatea, Etxeberrieta plazako Kotoin.

21:00 Zezen-suzkoa. Lebiton konpartsako lagunekin amaiera emango diogu jaiari.

TALOAK EROSTEKO
TXARTELAK AIURRIN,
KEINUN ETA
URRATSEN SALGAI,

PREZIOA 5 EURO



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 26

ANDOAIN Erakusketa

"Argazkiak eta objektuak", Itxaso Mendiluzeren eskutik. Basteroren XX. urteurrena ardatz hartuta. *Ohiko ordutegia, Bastero.*

ANDOAIN Agerraldia

Euskaingintzako sektoreak azaroaren 4ko manifestazioarekin bat egiteko deialdia luzatuko du. *19:00, Plaza Morea.*

OSTIRALA 27

URNIETA Informazio-gunea

2024ko aurrekontuko 150.000 euro zertara bideratu erabakitzeke parte-hartze prozesua martxan. *Informazio karpa: 10:00-14:30, Etxeberri plaza. 17:00-20:00, San Juan plaza.*

ANDOAIN Antzerki-tailerra

"Euskara eta lotsa", Garazi Urkolaren eskutik. Herritar guztiei eskainita. Mintzalagunak egitasmoak antolatuta. *18:00, Plaza Morea.*

ANDOAIN Bertso-afaria

Unai Muñoa eta Ander Lizarralde kantuan ariko dira. Afariaren prezioa 25 euroko da. *21:00, Irunberri.*

LARUNBATA 28

ANDOAIN, URNIETA Oharra

Bi udalerrietako tren-zerbitzua etengo du Renfek, eta bidaiariei busez garraiatzeko aukera eskainiko zaie. *Egun osoan.*

URNIETA Informazio-gunea

2024ko aurrekontuko 150.000 euro zertara bideratu erabakitzeke parte-hartze prozesua martxan. *Informazio karpa: 10:00-14:30, Kiroldegiaren ondoan.*

URNIETA Bisitaldi gidatua

Ondarearen Europako Jardunaldiak direla-eta, Jose Ramon Jauregi aizkoragilearen bisitaldi gidatua. Parte hartzeko deitu (943 00 80 00). *10:00, Erratzu industrialdea 1.*

**URNIETA Kantazaun taldearen kalejira**

Euskal kantutegia ahoan, kalez kale ibiliko da kantari eta musikari taldea. Hilabeteko azken ostirala denez, Kantazaun taldekoek euskal doinutegi oparoarekin girotuko dituzte, beraz, Urrietako kaleak. Parte-hartzea irekia da, euskaraz kantatzeko gogoia duen edozeinentzat. *Urriak 27, ostirala. 19:00, San Juan plaza.*

URNIETA Jardunaldiak

Rol, estrategia eta simulazio jardunaldien edizio berria. Larunbatean eta igandean, egun osoan Lekaion. Igandean, 12:00tan, erdi aroko eskrima erakustaldia plazan. *10:00-14:00 / 16:30-21:00, Lekaio.*

ANDOAIN Kontzertua

The Riff Trukers, John Dealer And The Coconuts eta The Deathlines rock taldeak zuzenean ariko dira. *22:00, Gaztetxea. 10 euro.*

IGANDEA 29

ANDOAIN, URNIETA Oharra

Bi udalerrietako tren zerbitzua etengo du Renfek, eta bidaiariei busez garraiatzeko aukera eskainiko zaie. *Egun osoan zehar.*

ASTEARTEA 31

ANDOAIN Gau Beltza

Larramendi Bazkunaren eskutik, ospakizun aparta: Txalaparta, antzezlan, dantza, txokolate-jatea, beldurraren pasabidea, kalejira, talo-jatea eta zezen suzkoa. *18:00, Goikoplaza.*

URNIETA Gau Beltza

Salesiar ikastetxearen eskutik, ospakizuna Etxeberri plazatik San Juan plazara. Informazioa, 7. orrialdean. *18:30, Etxeberri plaza.*

URNIETA Guraso eskola

Haurren segurtasuna kotxeetan, Nahia Alkortaren eskutik. *15:00, Magale.*

OSTIRALA 3

ANDOAIN Ospakizuna

Bastero Kulturgunearen 20. urteurreneko ekitaldi nagusia, herriko taldeen parte-hartzearekin. *19:00, Bastero.*

LARUNBATA 4

ANDOAIN Kontzertua

Jarfaiter rap musikaria, zuzenean. *22:00, Gaztetxea. Sarrerak agortuta.*

IGANDEA 5

ANDOAIN Kontzertua

Ibil Bedi taldea, zuzenean. *19:30, Gaztetxea. 8 euro.*

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Sound of freedom**


Lar, 28. 19:30, 22:00.
Ig, 29. 19:30.
Astl, 30. 19:30, 22:00.

Patrulla canina: La superpelicula

Lar, 28. 17:00.
Ig, 29. 17:00.

Lucky

Dokumentala.
Azaroak 1. 19:30.



SINOPSISIA

**Sound of freedom**

Zuzendaria: Alejandro Monteverde. **Aktoreak:** Jim Caviezel, Mira Sorvino, Kurt Fuller, Bill Camp, Scott Haze, Jose Zuñiga, Gustavo Sánchez Parra... **Herrialdea:** AEB (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, thriller. **Iraupena:** 131 min.

Gai arantzatsua, giza-trafikoarena

Tim Ballard Estatu Batuetako Segurtasun Nazionalako agente ohiaren istorioa kontatzen du. Bere egunean lana utzi eta ehunka haurren bizitzak

salbatzen saiatu zen. Pertsonen trafikoaren azpimunduan murgildu zen Latinoamerika osoan.



Urrietako
udala



XOXOKA

Tailerra, Xoxokako eskolan

Datorren azaroaren 3an, ostiralarekin, Garbiñe Larreak Izei ukendu baltsamikoa egiteko tailer praktikoa eskainiko du. Urrietako Xoxokako eskolan izango da, arratsaldeko 18:00tan hasita. Parte-hartzaileen kopurua mugatua denez, whatsapp bidez eman behar da izena 617 43 57 45 telefono zenbakira deituta.

Palestinarekin elkartasuna

Donostiakoa eta gero, manifestazio berria deitu dute Bilbon, larunbat honetarako. Bidalitako oharrean diotenez, "Palestinarekin elkartasuna adierazteko, sionisten genozidioa salatzeke eta herri palestinarraren erresistentzia eskubidea aldarrikatzeko". Busa Makaldegitik irtengo da, 15:45ean eta Urrietako kiroldegirantz abiatuko da 16:00tarako.



AIURRI



Klaap taldeko kideak, iazko Euskaraldian. AIURRI

Basteroko azken ekitaldirako sarrera aurretik hartu behar da

Azaroaren 3an urteurreneko azken ekitaldia ospatuko da, herriko artisten parte-hartzearekin

Erredakzioa ANDOAIN

Bastero Kulturguneko ikusleak maila handiko ikuskizunen lekuko izan dira, azken hogeitau urteotan. Kanpoko nahiz bertako artisten emanaldiak ugari izan dira. Denborarekin kontaezinak bilakatu dira. Urrian, hainbat ekitaldi egin dira, irekiera-egunaren XX. urteurrenarekin bat eginez.

Urteurrena borobiltzeko azken emanaldia datorren azaroaren 3an izango da, eta, gaurkoz, herritik eta herritarrentzat egin dako ikuskizuna izango dela aurreratu daiteke. Kultur eragile ugari ditugu Andoainen, musikari, dantzari, antzerkigintzari eta beste kultur jarduerari loturikoak. Horren guztiaren isla izango da datorren asteleheneko emanaldia. Udalak ohar bidez adierazi duenez, emanaldian belau-naldi ezberdinen artean loturak sustatuko dituzte, herrigintzari

bere lekua eskainiz: "Andoaingo Udalak herritarrak animatu nahi ditu mugarrira elkarrekin ospatzera". Joateko asmoa duenak, hori bai, hobe du gonbidapena aurretik hartzea. Ikuskizunean herriko askotariko artista, eragile eta elkartek parte hartuko dutenez, aretoa betetzeko aukera handia dago.

Gonbidapenak dagoeneko eskuragarri, Basteron

Sarrera doakoa izango den arren, beharrezkoa izango da tiketa eskuratzea. Horretarako aukera dago, Bastero Kulturguneko leihatilan.

AZAROAREN HIRUKO EMANALDIKO SARRERA DOAKOA DA, ETA BASTERON ESKURAGARRI DAGO

"Haurren segurtasuna kotxeetan" hitzaldia Urrietan

Guraso-eskola abiatu dute Magale-Salestarrak ikastetxe haur eskolan. Hala, Nahia Alkorta adituak emango du hitzaldia, urriaren 31n, 15:00tan, "Haurren segurtasuna kotxeetan" izenburupean. Bertan, askotariko gaiak jorratuko dira, besteak beste: haur txikiak kotxean zer nolako segurtasuna izan behar duten azalduko du adituak, zein elementu izan behar diren kontuan, adinaren arabera zer behar duten... Nork bere aulkia eraman dezake, errebisioa egiteko.

ODOL-EMAILEAK

ANDOAIN

Azaroak 13, astelehena.
16:30-20:30. ANDOAIN, Anbulatorioa
Hitzordua hartzeko: 943 007 884.

MERKATU TXIKIA

ALOKATU

Garaje marra alokatuta hartu nahiko nuke Andoaingo Ondarreta auzo inguruan. 660 122 632.

KONTZERTUA Gari&Maldanbera
azaroak 10, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi

ANTZERKIA Kanpora sartzen
azaroak 11, **LARUNBATA**, 20:00 Sutegi

KONTAKIZUNA ETA TERTULIA Usurbil borobil erriean dabil
azaroak 12, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi

Sarrerak: alde aurretik salgai usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noauako egoitzan.

NOAUA/KO KULTURALDIA 2023 USURBIL AZAROA

Nafar hegoaldeko
uzta euskarari puzka



Eskatu
saskia!



aek



ikastolenkartea



Sortzen



agerraldia

10 urte bete-bete

50€



urriak 20 - azaroak 9

Balioaren %25 Nafarroa
hegoalde eta erdialdeko
euskaigintzara bideratuko da.

